

Editoriala



GARAI BERRIAK

Oporretatik bueltan, abuztua amaitu ondoren, hilabete baliogabea inondik inora ere, iraila bukatzen ari gara jadanik. Egoerak gaizki jarraitzen du, lehen bezain gaizki, nahiz eta, hori bai, desberdina ematen duen. Kutxabanken ere pozez zoratzen daude lehen seihilekoan lortutako emaitzekin, nahiz eta motelgailua jarri.

Lekualdatze, ERE, kaleratze, aurreko erretiro gehiago, salmenta, erosketa, eta bestelakoetarako datak finkatzen zituzten laneko auziekin lotutako esames mota orori bide ematen zioten hilabete hasierako zurrumurruek ondoren, gauzak bere onera itzultzen ari dira nonbait. Eta orduan izango da egiazko albisteak iritsiko diren unea.

Sindikalgintzaren arloan, Lan Hitzarmen bat dugu, igarobide hutsa izango dena kutxan eta Vital egun daudenak ordeztuko dituen hitzarmen berri bat negoziatzen dugun arte; bbk-koa, berriz, desagertze bidean dago hitzarmenen ultraaktibitate klausula famatuaren ondorioz, 2013. urteko uztailean arte bizia ematen baitio.

Hala ere, negoziazioek ez aurrera ez atzera jarraitzen dute, maiatzean zeuden bezalaxe, enpresaren indarrezko jarreraren artean eta bizi dugun garaietan senetz jokatzeko ezintasuna duten sindikatu batzuen artean. Itzuliko ez den iragan batean txertatuta jarraitzen dugu, eta berealdiko berrikuntza behar duen ekintza sindikal batean.

Ez enpresak, ez Euskadik, ez Espainiak, ez Europak ez dute duela 30 urte denok gure enpresaren batere antzik.

Eta, hala ere, askok jardunean jarraitzen dute ezertxo ere aldatu izan ez balitz bezala.

Badira langileek emandako ordezkari handia izanik, oraindik ere egunerokoari jaramonik egiten ez diotenak, eta makroan ezkututzen direnak garai nahasi hauetan sentitzen duten ezintasuna justifikatzeko, ez baitakite zer egin edo ez dakite nola aurrera egin.

Egia da ordezkari sindikalek (eta langile talde osoak) erantzukizun handia dugula gaur egun Kutxabanken gauden langileen eta etortzekoak direnen etorkizuneko lan baldintzak negoziatzeko orduan. Horrek, ordea, ez du babesleku gisa balio behar besoak tolesturik gelditzeko, zezenari adarretatik heldu ordez.

Aurrera egin beharra dago, berritu, arazoa aztertu eta konponbide bat bilatu. Eta batez ere, lan egin beharra dago.

Behin eta berriz eslogan bera errepikatzea, betiko leloak esatea, aspaldidanik funtzionatzen ez duten neurriak proposatzea eta besteek Hitzarmena noiz sinatuko diguten zain egotea, hori ez da, inondik inora ere PKn egiten dugun apustua.

Denbora berrietara moldatu behar dugu, eta neurriak aurkitu behar ditugu enplegua eta lan-baldintzak mantentzeko, jakinik mugak, une hauetan, oso estuak direla, baina inoiz baino hobeto jokatzeko betebeharra dugula.